

C. Zumárraga 7,  
Entrada Maestro Icár  
48006 Bilbao  
t: 94 679 22 92  
m. 645 005 426  
info@lataller.com  
www.lataller.com

# Not my cup of tea

## Rosa Parma

Arratoiak etengabe ugaltzen dira New Yorken, beldurra eta nazka ematen didate, eta horrek ez nau oso cool egiten. Gustatuko litzaidake punkiago izatea eta arratoi bat adoptatzea baina pentsatze hutsak uxatu egiten nau. Gutxienez esan dezaket nire alaba arratoiaren urtean jaio zela Txinako horoskopon. Arratoitxo bat da eta maitagarria da.

Negu honetan elur asko bota du. Apartamentuak garbitzen ditut eta zaborraz arduratzen naiz Brooklyngo brownstone eraikin batean. Elurteak patioko loreontziak estali ditu eta babesleku ona izan da haientzat. A zer majak! Ezin dut jasan. Salto egiten dute, salto egiten dute eta ni bihurritu egiten naiz. Ezagutzen dut arratoi kaka nola usaintzen duen, eta ezin dut usain hori jasan. Hiru egun geroago, txorrotako urak arratoi kaka usaina izaten jarraitzen du.

Otsailean elur mazakoteak urtzen hasi ziren, eta hantxe ikusten ziren zuloak. Berriro! Nire nagusiak loreontziak urez bete arte ureztatzea proposatu zidan. Ez zaie ura gustatzen. Pare bat aldiz egin nuen, bihotza estututa nuela. Haiek ikaratu egiten dira eta bapatean ateratzen dira, haiek salto egiten dute eta nik salto egiten dut eta bihotza iraultzen dit, oilo-ipurdia.

Beste insomnio gau bat izan da. Titia utzi eta zigarro bat erretzera altxatzen naiz. Ematen du ez zaidala iristen hilabete honetan, berriz ere, alokairua ordaintzera. Zigarro bat erretzera jaiki eta "hankako albistea" irakurri didate. A zer irudi ederra. Mediku batzuek hanka ona moztu diote Austriako andre bati. Kontxo, alokairuarena eta arratoiarena berdin zait eta ohera noa nire arratoiarekin batera lo egitera.